

ikusiker



**ASTEBETEKO
IKUS-ENTZUNEZKO
KONTSUMOA**

6. Txostena

2019ko abendua

ASTEBETEKO IKUS-ENTZUNEZKO KONTSUMOA

Ikarketa honen helburua ikasleen artean nagusitzen den ikus-entzunezko kontsumo joera aztertzea da. Helburu horri jarraituz, inkesta bidez EHUko ikasle talde batzuei beren kontsumoaren inguruko galderak egin zaizkie. Zazpi egun iraun duen inkesta baten bidez, astebetez egindako ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertu da dokumentu honetan jasotzen diren inkestetan.

1. Ohar metodologikoak


Txosten honetan jasotzen diren datuak Ikusiker paneleko kideei egin zaien inkesta batetik jasotzen dira. Inkesta hori 2019ko azaroan egin da, astebeteko tartean: azaroaren 4an jarri zen martxan eta 11n itxi.

Panelistek, aste osoan zehar, egunero erantzun behar zituzten galdera batzuk. Guztira 982 panelista hasi ziren inkesta erantzuten, eta horietatik 483 iritsi ziren azken eguneko ikus-entzunezko kontsumoari buruzko datuak ematera.

Panelista horien erantzunak islatzen dira jarraian jasotzen diren ataletan. Baina egun bakoitzeko erantzun kopurua aldatu egiten da. Honakoa da egun bakoitzeko galderak erantzun dituen inkestatu kopurua:

EGUNA	ERANTZUN KOPURUA (eguneko lehenengo galderan)
Astelehena	974
Asteartea	856
Asteazkena	772
Osteguna	732
Ostirala	637
Larunbata	527
Igandea	483


1. Irudia - Erantzun kopuruen bilakaera:



Iturria: Ikusiker

2. Astelehena, azaroak 4


2. Irudia - AL - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?



Iturria: Ikusiker

Astelehenean telebista tradizionala ikusten pasa den denboraren inguruan galdetu da. Inkestatutakoen %18,0k 30-60 minutu artean ikusi du telebista, %14,1ek 15-30 minutu artean eta %12,0k 60-90 minutuz ikusi du telebista. Aldiz, inkestatutako ikasleen %36,8k adierazi duenez, ez du telebista tradizionalik ikusi astelehenean. Beraz, asteleheneko emaitzei erreparatuz, erdiak baino gehiagok (%63,3ak) telebista ikusi du.

3. Irudia - AL - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Telebista ikusi dutenen kasuan, gehien ikusitako kanalak honako hauek dira, hurrenez hurren¹: La1, Antena3, La Sexta eta ETB2. Ikusitako saioen artean aniztasuna dagoen arren, La1 izan da gehienbat ikusitako kanala (%25,0). ETB1 kasuen %3,3n ikusi da eta ETB3 kasuen %0,3an. Bestalde, inkestatutakoen %9,9k adierazi duenez, beste mota bateko kanak ikusi izan dira. Ikusitako saioen gehiengoa gaztelaniazko kanaletan dira

¹ Galdera honetan "ez nuen telebista ikusi" aukera gehitu da. Printzipioz erantzun hori beharrezkoa ez den arren, irizpide tekniko bat erabili da: galdera guztiak erantzuteko aukera zuten inkestatuek. Hori dela eta, telebista aurrean denborarik pasa ez dutenek ere zerbait klikatzeko aukera izatea ahalbidetu da honela.

(%87,5), ikusitako euskarazko kanalen portzentaia txikia izanik: %3,6.

4. Irudia - AL - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Astelehenean interneten edo sare sozialetan ikusitako ikus-entzunezkoen denborari dagokionez, telebista tradizionalan baino denbora gehiago ikusi dela ondorioztatu daiteke.

Inkestatutakoen erdiak baino gehiagok 30-90 minutu tartean ikusi ditu: %26,8k 30-60 minutu eta %21,6k 60-90 minutu artean. Hala ere, nolabaiteko aniztasuna dago ikusitako denborari dagokionez. Izan ere, inkestatutakoen %13,5ek ikus-entzunezkoak 15-30 minutu artean ikusi du eta %11,3k 120 minutu baino gehiago. Kasuen %5,9n 0-15 minutu artean ikusi da.

5. Irudia - AL - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Ikus-entzunezkoak ikusteko erabilitako sistema edo plataformei dagokienez Youtube plataforma nagusi da %60,6ko kopuruarekin. Orobat, inkestatutakoen kasuen ia erdiak (%40,8k) Instagram erabili du eta hamar inkestatuetatik ia hiruk Netflix plataforma erabili du, kasuen %29,4n. Bestelakoei dagokienez, emaitzak askotarikoak dira:

edukien %16,0 Twitter sare sozialean kokatzen da, %11,0 Googlen eta %8,3 gainerako sistema edo plataformetan (%8,3); bestelako plataformak %9,3 dira guztira.

3. Asteartea, azaroak 5


6. Irudia - ASR - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?



Iturria: Ikusiker

Asteartean telebista tradizionala ikusten pasa den denboraren inguruan, aurreko egunean telebista ikusi ez dutenen ikasleen portzentaia handitu da: inkestatutako en diak baino gehiagok ez du telebista ikusi (%55,5ek). Telebista tradizionala ikusi dutenen kasuan, laurdenak 15-60 minutu bitarteko denbora igaro du telebista ikusten (%25,7).

7. Irudia - ASR - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Asteartean telebistan ikusitako kanalen inguruan galdetu da. Gehien ikusitako saioen artean emaitzak parekoak dira: Tele5 (%12,4), Antena3 (%12,2) eta ETB2 (%11,9). Ondorengo kasuetan La Sexta litzateke nagusi (%7,4). Ikusitako gainerako ikustaldien artean aniztasuna da nagusi: %5eko kopuruaren inguruan daude EITB1, Cuatro, La1 eta FDF. Bestelako saioen kasuan, %11,9koa da kopurua.

Hizkuntzei dagokienez, gaztelaniazko saioak dira nagusi: euskarazko kanalei dagokien portzentaia %6,1ekoa da.

8. Irudia - ASR - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoen denbora kopuruari dagokienez, inkestatutako laurdenak baino gehiagok 30-60 minutu artean ikusi ditu saioak. Halaber, kasuen %14,4an 15-30 minutu ikusi da eta kasuen %18,9n 60-90 minutu artean. Beraz, erdiak baino gehiagok 15-90 minutu arteko denbora igaro du, kasuen %60,5ek zehazki.

Astearteko kasuan ere, internet edo sare sozialen bidez ikusitako saioetan telebista tradizionalan baino denbora gehiago ikusi dela esan daiteke.

9. Irudia - ASR - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Sare sozialen bidez edo internet bidez ikusitako ikus-entzunezkoen sistema edo plataformetan Youtube da nagusi, erantzuleen erdiek baino gehiagok plataforma hori erabiltzen baitu (%56,5ak). Segidan, Instagram sare soziala erabiltzen da gehien, %40,3ko portzentaiarekin. Inkestatutako laurdenak baino gehiagok Netflix erabiltzen du edukiak ikusteko (%27,4) eta, azkenik, Twitter da nagusi %14,8ko kopuruarekin.

Gainerako plataforma edo sistemak nahiko barreiatuta daude, %2ko langa ez baitute gainditzen. Bestetik, bestelako plataformak %8,5 batzen dute guztira.

4. Asteazkena, azaroak 6


10. Irudia - AZK - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?



Iturria: Ikusiker

Asteazkenean, inkestatutakoek adierazten dutenez, hamar ikasletik bostek ez dute telebista tradizionala ikusi (%55,5ek). Aldiz, laurdenak (%25,8k) telebista ikusi du 15-60 minutu artean. Gainerako kopuruei erreparaturaz: %7,0k 0 eta 15 minutu artean ikusi du telebista; %6,6k 60-90 minutu artean; eta, emaitzek erakusten dutenez, ia pareko dira hori baino denbora gehiago eskaintzen diotenak (90-120 minutu edota hori baino gehiago, %5,2).

11. Irudia - AZK - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionala ikusi dutenen artean emaitzak barreiatuta daude. ETB2-k eta Antena3-ek antzeko emaitzak jaso dituzte: %11,6 eta %10,7, hain zuzen ere. ETB2 da kanal nagusia eta ETB1ek %4,4a biltzen du. ETB3 da gutxien ikusitako kanala %0,4ko kopuruarekin, La2-ekin batera. Bestalde, %9,3k bestelako ikustaldiak ikusi ditu asteazkenean.

Hizkuntzari dagokionez, hirugarrenoz gaztelaniazko saioak dira nagusi: inkestatu-takoen artean hamarretik ia zazpi (%68,5ak) gaztelaniaz kontsumitu dute. Aldiz, euskarazko saioek %4,8ko ehunekoa lortzen dute.

12. Irudia - AZK - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparte ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Asteazkenean sare sozialen bidez edo internetez ikusitako edukien denborari dagokionez, ia laurdenak (%24,4k) 30-60 minutu arteko denbora igaro du. Aurreko eguneko emaitzen parekoak dira hauek. Inkestatutakoen erdiak baino gehiagok (%58,8k) 15-90 minutu arteko denbora igarotzen du ikus-entzunezkoak ikusten. Bestetik, gehiago dira edukiak ikusten denbora luzea igarotzen dutenak, 90-120 minutu baino gehiago ikusten dutenak, %19,4 punturekin. Azkenik, %6,2k 0-15 minutu arteko denbora igarotzen du.

Asteazkenean handiagoa da, berriz ere, telebista tradizionalaz aparte ikus-entzunezkoen pasatako denbora kopurua.

13. Irudia - AZK - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Aurreko egunetan bezala, ikus-entzunezkoak ikusteko erabilitako sistema edo plataforma hauek dira nagusi: Youtube, Instagram eta Netflix. Ikasleen erdiak baino gehiagok (%53,2) Youtube erabiltzen du. Herenak baino gehiagok (%39,5ek) Instagram eta ia laurdenak (%24,3k) Netflix. Azken hiru plataformetan eta sare sozialean biltzen da ikusle gehiena, ondorengo plataforma nagusiak hauek izanik elkarren segidan: Twitter eta Google. Bestelako sistemek %8,3 lortzen dute.

5. Osteguna, azaroak 7

14. Irudia - OSG - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?




Iturria: Ikusiker

Ostegunari dagokionez, telebista ikusi ez dutenen kopurua igo egin da azken hiru egunetan: inkestatutakoen hamarretik ia seik ez dute telebistarik ikusten %58,1eko kopuruarekin. Telebista ikusten dutenen artean 15-60 minutuak dira nagusi, ia laurdena izatera iritsiz (%24,6). Bestalde, %7,4 dira 60-90 minutuz ikusi dutenak eta, horien ondoren, telebista ikusten denbora gutxi igarotzen dutenak %5,3 dira.

Horrela, osteguna litzateke telebista tradizional gutxien ikusi den eguna.

15. Irudia - OSG - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Telebista ikusi zuten ikasleen artean Tele5 da nagusi ostegunean, %12,0rekin. Ondoren, LaSexta kanala ikusi dutenen kopurua da nagusi, %11,7. Gehien ikusitako kanalak honako hauek dira, hurrenez hurren: ETB2, Antena3, Cuatro eta ETB1. Bestelako saioak ere nagusi dira (%8,8). ETB1ek asteazkenean baino emaitza txikiagoa jaso du %4,2ko kopuruarekin eta ETB3k aurrekoak galdutako %0,2 puntu irabazi ditu. Hala ere, azken hau gutxien ikusitako kanala da, %0,6ko kopurua lortuz.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniazko saioen kopurua nagusia da nabarmen, euskarazko saioak %4,8k bakarrik ikusi baititu.

16. Irudia - OSG - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran... interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Ostegunean telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoetan denbora kopurua nabarmen hazten da telebista tradizionalarekin alderatuz. Ikasleen ia laurdenak 30-60 minutu artean igarotzen du, %23,6 puntuko emaitzekin. Horrela, erdiak baino gehiagok 15-90 minutu artean ikusten ditu sare sozial eta internet bidezko saioak (%53,8k). Bestalde, inkestatutakoen kopuru handi batek (%21k) 90-120 minutu baino gehiagoko denbora igarotzen du saioak ikusten.

Emaitzei erreparatuz, edukiak ikusi ez dituztenen kopurua handitzen joan da egunak pasa ahala: sare sozial edo plataformen bidez ezer ikusi ez dutenen kopurua %17,8 izan da, eguneko ia %2 puntu handituz.

17. Irudia - OSG - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Azkenik, ostegunean ikus-entzunezkoak ikusteko erabilitako plataformari dagokionez, ia erdiak (%48,3k) Youtube erabiltzen du, %38,1ek Instagram eta ia laurdenak (%24k) Netflix. Ostegunean ere nagusi dira azken hiru plataforma horiek. Ondoren, Twitter da nagusi %14,1eko ehunekoarekin eta Google zein bestelako plataforma batzuk daude segidan. "Beste" plataformen erabilera txikia da (%7,2).

6. Ostirala, azaroak 8

18. Irudia - OSR - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusten?




Iturria: Ikusiker

Ostiralean telebista tradizionala ikusteari dedikatutako denborari dagokionez, telebista ez ikustearen joera gailentzen da: inkestatutakoen ia bi herenek ez dute telebista ikusi (%58,1ek). Orokorrean, telebista ikusten igaro duten pertsonen denbora txikitu egin da: gehiengoak, alegia, %13,0k 15-30 minutu artean ikusi du telebista eta, ondoren, %9,1ek 30-60 minutu artean ikusi du.

Hortaz, ostirala litzateke ostegunarekin batera, aste osoan zehar telebista gutxien ikusi den eguna.


19. Irudia - OSR - Zein telebista kanaletan izan zen?



Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionala ikusi dutenen artean, emaitzak aste osoko anitzenak dira. Hala eta guztiz ere, gehien ikusi diren kanalak honako hauek dira: "bestelako saioak", ETB2, Antena 3, Cuatro eta Tele5. ETB2 bigarren lekuan gelditzen da %9,4ko kopuruarekin. Beste behin, gaztelaniazko kanalak dira nagusi: ikustaldien %95 gaztelaniaz izan da; euskarazko saioen ehunekoa %5ekoa.

20. Irudia - OSR - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparte ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Ostiralean telebista tradizionalaz aparte edukiak ikusten igarotako denboraz galdetu da: inkestatutakoen %23,7k, hots, ia laurdenak, 30-60 minutu arteko denbora igaro du eta %16,2k 60-90 minutu; %12,3k 120 minutu baino gehiago igaro ditu edukiak ikusten. Ondorioztatu daiteke, bada, ostiraleko kasuan ere, internet edo sare sozialen bidez ikusitako saioetan, telebista tradizionalan baino denbora gehiago pasa dela.

Bestetik, edukirik ikusi ez dutenen kopurua gutxi igo da osteguneko emaitzekin alderatuz: %18,1ek ez du plataformen bidezko saiorik ikusi.

21. Irudia - OSR - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Plataformen bidezko saioei dagokienez, erabilitako plataforma nagusia kasuen %43,3an Youtube izan da. Ondoren, Instagrameko ikustaldiak dira nagusi %37,5 punturekin eta, azkenik, Netflixeko ikustaldiak %28,9rekin. Ostiralean ere, azken hiru plataforma horiek dira nagusi Twitterrekin batera telebistaz aparteko ikus-entzunezkoei dagokienez.

7. Larunbata, azaroak 9

22. Irudia - LA - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?




Iturria: Ikusiker

Larunbatean telebista tradizionala ikusi ez duten ikasleen kopurua igo egin da aurreko egunekin alderatuz: kasuen %59,4etan ez da telebista ikusi. Haatik, telebista ikusi den denbora zertxobait igo da: %10,2k 30-60 minutu igaro dituela adierazi du.

Halaber, telebista 120 minutu baino gehiago ikusi dutenen kopurua ia bikoiztu egin da ostiraleko emaitzekin alderatuz. Izan ere, 1,5 puntu handitu da telebista denbora luzez ikusi dutenen ikasleen kopurua (%3,4).

23. Irudia - LA - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Telebistan ikusitako saioei dagokienez, %16,3ko kasuetan inkestatuek bestelako saioak kontsumitu dituzte. Horrela, emaitzak oso barreiatuak daudela esan daiteke, inork ez baitu %10eko langa gainditzen. Hori jakinda ere, saio ikusienak Antena3, Cuatro eta ETB2 izan dira.

Larunbateko ikustaldiak gaztelaniazkoak izan dira oro har: saioen hamarretik ia bederatzi gaztelaniaz ikusi dira. Euskarazko kanalak kasuen %5,5ean ikusi dira.

24. Irudia - LA - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?




Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionalaz aparteko edukiak ikusten pasa den denbora kopuruaz galdetuta, ikasleen gehiengoak, %22,7ko kasuetan, 30-90 minutu artean ikusi du. Ikustaldi luzeenak larunbatean izan dira: %15,3k 120 minutu baino gehiagorik ikusi ditu edukiak. Aldi berean, larunbatean jaso da ikustaldirik egin ez den kopuru handiena, %19,7k ez baitu ikus-entzunezkoak ikusi telebista tradizionalaz kanpo.

Ondorioz, larunbata da telebistaz aparteko ikus-entzunezkoen ikustaldi luzeenak eta, aldi berean, gutxien biltzen dituen eguna.

25. Irudia - LA - Erabilitako sistema edo plataforma?




Iturria: Ikusiker

Internet bidezko ikus-entzunezkoen plataformei dagokienez, aurreko egunetako hiru plataforma nagusiak gailentzen dira: Youtube, ikusitako saioen %44,8rekin; Instagram, saioen %39,4rekin; eta Netflix %28,3rekin. Gainerako plataformak erabilera gutxi dute. Horien artean erabilera handiena Twitter eta "beste" plataforma batzuek dute.

8. Igandea, azaroak 10

26. Irudia - IG - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionala ikusteari?




Iturria: Ikusiker

Igandean telebista tradizionala ikusi dutenen denbora kopurua handitu egin da. Asteleheneko emaitzak gainditu ditu eta aste osoko emaitza altuenak lortu dira: %18,8k 30-60 minutu artean ikusi du telebista; %16,6k 60-90 minutu artean; 90-120 minutu artean %8,3k; eta, azkenik, %7,2k 120 minutu baino gehiago ikusi du telebista tradizionala. Inkestatutako hiru ikasleetatik bik telebista ikusi dute, kasuen %33,1ean ez baita telebista ikusi.

Hortaz, igandea da inkestatutako ikasleek telebista tradizionala denbora gehiagoz ikusi duten eguna.

27. Irudia - IG - Zein telebista kanaletan izan zen?




Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionalan egindako ikustaldiak bi kanal nagusitan batu dira: LaSexta kasuen %24,8n eta ETB2 kasuen %22,0n. Gainerako ikustaldiak, gehienbat, La1 (%15), "bestelako" saioak (%12,4) eta Antena3 (%11,5) bidez izan dira.

Hizkuntzari dagokionez, ETB1ek aste osoko emaitza onenak lortu ditu igandean, astearteko ikusle kopurua bikoiztuz: kasuen %11n ikusi da. Hala ere, saioen gehiengo gaztelaniazkoa da. Euskarari dagokion zenbatekoa %11,5ekoa da.


28. Irudia - IG - Zenbat denbora dedikatu zenion atzo telebista tradizionalaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteari (sare sozialak, Netflix, Youtube, Nahieran...interneten bidez jaso daitezkeenak)?



Iturria: Ikusiker

Internet bidezko ikus-entzunezkoek dagokienez, igandean telebista tradizionala baino denbora gehiago ikusi dela ondorioztatu dateke. Inkestatutakoen herenak baino gehiagok (%37,6k) 30-90 minutu igaro zituen ikus-entzunezkoak ikusten eta %14,3k 120 minutu baino gehiago igaro zituen. Bestalde, ikasleen %18,1ek ikus entzunezkoak ikusi ez zuela adierazi du.

29. Irudia - IG - Erabilitako sistema edo plataforma?



Iturria: Ikusiker

Igandean telebistaz aparteko ikus-entzunezkoak ikusteko plataformetan Youtube,


Instagram eta Netflix gailentzen dira, hurrenez hurren. Ondoren, Twitter, "bestelako" plataformak eta Google leudeke. Beraz, esan daiteke aste osoan zehar egindako plataformen erabilera lehen aipaturako hiru horietan biltzen dela, batik bat.

9. Aste osoko ibilbidea, sintesia

Egunez egun ikusitako datuak modu sintetikoan ikusita, ondorio batzuk atera daitezke. Telebista tradizionala eta hortik kanpo ikusten diren edukiei dagokienez (igarotako denbora albo batera utzita), esan daiteke telebistaz aparteko plataformak egunero erabiltzen dituztela inkestatu gehienek: hala, erantzuleen gutxienez hamarretik zortzik adierazi du plataforma horiek erabili dituela egun bakoitzean zerbait ikusteko.

Telebistaren kasuan, egunaren arabera desberdintasunak gehiago nabarmentzen dira. Telebista erabili dutenen ehunekoa %40-45aren bueltan kokatzen da ia egun guztietan. Ehunekoak handitu egiten dira astelehenean eta igandean, hamarretik seik baino gehiagok adierazi baitu zerbait ikusi duela. Igandean ikusi dute telebista ikasle gehienek, inkestatuen %66,9k.


30. Irudia - Ikus-entzunezkoen kontsumoa telebista tradizionalean eta hortik kanpo, astebeteko ikuspegia (%)



Iturria: Ikusiker

Telebista kanal bakoitzak izan duen ikusle kopuruari erreparatuta, aniztasun nahikotxo ikusten da. Egunen artean gorabeherak eta xehetasunak ikusten diren arren, oro har telebista kanal guztien eguneko ikusleak inkestatuen %15etik behera kokatzen dira. Horrez gain, hainbat telebista kanalek ez dute inongo kasutan %5eko langa gainditzen.


31. Irudia - Telebista kanal bakoitzak izandako ikusleak eguneko, %



Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionalaz kanpoko sistema edo plataformen kasuari erreparatuta, bariazio txikiagoa ikusten da egunetik egunera telebistaren kasuarekin alderatuta. Are gehiago, egun guztietan nabaritzen da hiru plataforma direla nabarmen erabilienak, eta beti honako hurrenkeran: Youtube, Instagram eta Netflix.

32. Irudia - Sistema edo plataforma bakoitzak izandako erabiltzaileak eguneko, %



Iturria: Ikusiker